

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Eneko Oregi Goñi

*Bergara,
Gipuzkoa
(1953)*

Aurkibidea



Biografia



Zubiartea etxean jaioa. Ama Tolosakoa zuen: Miren Goñi. Aita Josu Oregi bergararra. Guraso biak euskaltzaleak eta euskararen alde asko egindakoak. Aitaita zinegotzi jeltzalea izan zen eta amama Emakume Abertzale Batzakoa, gerra aurreko ikastolaren bultzatzaileetako bat. Aita euskaltzain urgazlea izan zen eta itzultzailea. Baita Eneko bera ere. Ekonomia eta Enpresa Zientziak ikasi zuen EHUn eta IVAPeko euskararako zuzendariordea da. [Arantzazu Oregi](#) arreba ere elkarrizketatu dugu, familiako kontuak jasotzeko.

Zintak

BER-349

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-03-02
- **Iraupena:** 95 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Etxean beti euskaraz

- **Erref:** BER-349/002
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:01:29. **Bukatu:** 00:02:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Enekoren gurasoak Bergarako euskalgintzako eta kulturgintzako parte-hartzaile aktiboak izan ziren. Aitak euskarazko klaseak ematen zituen Elementalean.

2. Bergarako lehenengo ikastola: sorrera eta kokalekua

- **Erref:** BER-349/003
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:02:50. **Bukatu:** 00:04:32

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Beste familia batzuekin batera sortu zuten lehenengo ikastola Bergaran 1959-1960. urteetan, Mirakruzeta kaleko Batzoki zaharrean. Egoitza antzerkia, batzokia eta falangeko egoitza izan zen. Don Jose Leon Lasa Apalategi kanonigoaren bitartez sortu zela ikastola kontatzen du Enekok.

3. Bergarako lehenengo ikastola: ikasleak eta andereñoa

- **Erref:** BER-349/004
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:04:32. **Bukatu:** 00:06:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Bergarako ikastolako lehenengo ikasleak 12 inguru besterik ez ziren. Irakaslea Dominika Madinabeitia izan zen. Ikastolan dena euskaraz ikasten zuten. Erabiltzen zituzten liburu batzuk, aritmetikako ariketak egiteko tresneria...

4. Batxilergora sartzeko akademia Bergaran

- **Erref:** BER-349/005
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:06:22. **Bukatu:** 00:07:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Ikastolan bi urtez ikasi ondoren, Mizpildi kaleko akademian batxilergorako sarrera prestatzen zuten ikasleek, gaztelaniaz. Irakasleak aipatzen ditu. Azterketa Donostian egiten zen eta, ondoren, batxilergoko ikasketak hasteko aukera zuten.

5. Jaunartzea egiteko dotrina euskaraz

- **Erref:** BER-349/006
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:09:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

Ikastolan zeuden bitartean, jaunartzea prestatzeko dotrina euskaraz jaso zuten. Garaiko euskarazko dotrinak nolakoak ziren kontatzen du Enekok. Don Pedro Garitanok ematen zuen dotrina. Gabonetan, Santa Agedetan... kantuan eta eskean ateratzen ziren.

6. Bergarako lehenengo ikastola: gelakideak

- **Erref:** BER-349/007
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:09:03. **Bukatu:** 00:11:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Ikastolatik antolatuta, ballet-a irakatsi zieten. "Salon Novedades"en dantzatu zuten behin. Ikastolan hamabi ikasle inguru ziren eta bi urteko ezberdintasuna zeukaten. Gelakideak aipatzen ditu. Andereñoa oso gozoa zela gogoratzen du.

7. Bergarako Ikastolaren sorrera

- **Erref:** BER-349/008
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:11:58. **Bukatu:** 00:14:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Zenbait gurasoren ekimen baten bidez sortu zen Bergaran Ikastola. Enekoren gurasoek ere parte-hartu zuten. Ikastola sortzeko, Bergarako elizak ekimenari legezko babesa eman zion. "Konbenixo" kaleko elizaren jabetzako lokal batean hasi ziren.

8. Gerra aurreko euskal ikasketak eta mugimendua

- **Erref:** BER-349/010
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Enekok aitona-amonei eta gurasoei buruz hitz egiten du. Aitona Bizente 1931ko eta 1936ko hauteskundeetan zinegotzi izendatua izan zen. Amona Bittori Bergarako Emakume Abertzale Batzako kidea zen. Ikastolaren eta antzerki-taldearen sorreran parte hartu zuen. Enekoren aitak ez, baina amak Tolosako ikastolan ikasi zuen gerra aurretik.

9. Gerran Bergaratik ihesi; bueltan, Urretxura

- **Erref:** BER-349/012
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:19:37. **Bukatu:** 00:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Politika » Gerra aurea

- **Politika** » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra aurretik Enekoren aitona zinegotzi jeltzalea izan zen eta, gerra hastean, ihes egin zuen Ipar Euskal Herrira. Aitonak oihal-fabrika bat zeukan bere anaiarekin eta militarrek hartu zuten gerrako produkzioarako. 1942an bueltatu ziren, baina Urretxun bizitzen egon ziren nahiz eta egunero Bergarara lanera joan. Urte batzuk pasatuta, Bergarara bueltatu ziren.

10. Isuna ordaindu eta gerra ostean Bergarara buelta

- **Erref:** BER-349/014
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:22:57. **Bukatu:** 00:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- **Politika** » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Politika** » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Politika** » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Enekoren aitonari erantzukizun politikoen espedientea ("Expediente de Responsabilidades Políticas") zabaldu zioten. Isuna ordaindu eta gero, familia Bergarara bueltatu zen, herriko plazan zeukaten etxebizitzara.

11. Bergarako Uriburu Batzarra gerraostean; Eusko Langileak

- **Erref:** BER-349/015
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:23:47. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- **Politika** » **Politika** eta Franco
- **Politika** » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

1945ean, Bergarako abertzaleak berriz antolatzen hasi ziren eta Bergarako Uriburu Batzarra martxan jarri zen, "Kaxparrenian". Lehenengo bilera argi gabe egin zen, klandestinitatean mantentzeko. Eusko Langileak ere berriz martxan jarri ziren eta Eskola Elementalean biltzen ziren. Antolatu zituzten grebei buruz hitz egiten du Enekok. Aitak gerraostean ELAko sindikatuan hitzaldi bat eman zuen, euskara eta abertzaletasunari buruzkoa.

12. Bergarako gerraosteko mugimendu politikoak

- **Erref:** BER-349/016
- **Iraupena:** 0:02:54. **Hasi:** 00:26:15. **Bukatu:** 00:29:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- **Politika** » **Politika** eta Franco
- **Politika** » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Gerraostean Bergaran bi mugimendu politiko nagusi zeuden: abertzaleak eta karlistak-frankistak. Errepublikanoak ere bazeuden, baina oso gutxi. Herriko pertsona garrantzitsuenak (medikua, abokatuak, epailea...) erregimenekoak izaten ziren. Lantegiak zituztenen artean, etxean euskaraz egitea ez zen ohikoa, baina Enekoren aitaren etxean horrela hitz egiten zen.

13. Klandestinitatea; Euzko Naia eta Noel-Bakerren bisita

- **Erref:** BER-349/017
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:29:09. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Klandestinitateari buruz hitz egiten du Enekok. Herri bakoitzak biltzeko modu ezberdinak zituen. Jeltzaleen Euzko Naia erakundeari buruz hitz egiten du. Francis Noel-Baker diputatu ingeles laboristaren bisita antolatu zuten. Bergarara iritsi zirenean, ingelesa nola agurtu zuten kontatzen du. Bisita horren helburua ingelesei abertzaleak ondo antolatuta zeudela erakustea izan zen.

14. Gerraostea: kultura, euskara, eliza...

- **Erref:** BER-349/018
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:33:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Gerraostean kulturgintza eta euskara baztertuta geratu ziren. Abadeak bi bandotan zeuden: errepresaliatuak eta erregimenekoak. Bergaran sozialistak eta komunistak ez, baina abertzale jeltzaleak asko ziren.

15. Euskaltzaindia gerraostean

- **Erref:** BER-349/019
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:33:41. **Bukatu:** 00:34:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Euskaltzaindiak, 50. hamarkadan, berriz martxan jartzeko baimena lortu zuen, euskaltzaleak ziren erregimeneko pertsonekin: Antonio Arrue, Resurrecion Maria de Azkue... Poliki mugitzen ziren, hitzaldiak egiten.

16. Euskarazko aldizkariak gerraostean

- **Erref:** BER-349/020

- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:34:53. **Bukatu:** 00:36:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Gerraostean erbestean argitaratzen ziren euskarazko aldizkariak buruz hitz egiten du Enekok: Euzko-Gogoa (Guatemala), Euzkalduna (Ipar Euskal Herria)... Euskal Herriaren Adiskideen Elkartek Egan aldizkaria atera zuen. Euskarazko ekitaldiak edo artikulatuak oso gutxitan azaltzen zirenez eta jendeak ez zuenez haien berri, erregimenak baimendu egiten zituen.

17. Bertsolaritza 50eko hamarkadan

- **Erref:** BER-349/021
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:36:56. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerraostean bazeuden bertsolariak, baina karlistak ziren. Basarri eta Uztapide, Langileen Batailoiak batean zeuden, bat preso eta bestea guardia eta beraien artean bertsoan ibiltzen ziren. Euskaltzaindia hasi zen bertso saioak antolatzen eta pixkanaka herrietara zabaltzen joan zen. Alfonso Irigoien gai-jartzailea eta epailea.

18. Euskal kulturgintza 50eko eta 60ko hamarkadetan

- **Erref:** BER-349/022
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:39:40. **Bukatu:** 00:42:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Euskal kulturgintza asko aldatu zen 50eko hamarkadatik 60kora: bertsolariak, abeslariak... 50eko hamarkada askoz ilunagoa izan zen. Ipar Euskal Herrira joaten ziren diskoak erostera. Han ikurrinak kalean ikusteaz harritzen ziren.

19. `Xabale´ren heriotza

- **Erref:** BER-349/024
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:42:24. **Bukatu:** 00:44:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Agustin Unzurrunzaga 'Xabale' bergararren atxiloketa eta heriotza kontatzen du Enekok. Bergarako herriarentzat kolpe handia izan zen.

20. Haurrak ikastolara eramatearen inguruan zalantza

- **Erref:** BER-349/025
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:44:15. **Bukatu:** 00:46:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

60ko hamarkadan, frankismoa nazioartera zabaltzen hasi zen (turismoan, ekonomian, prentsan...). Kulturgintza aldetik, Bergaran gauzak antolatzen hasi ziren, ikastola, besteak beste. Lorpen oso handia izan zen, nahiz eta familia askotan haurrak bertara ikastera eramatearen inguruan zalantzak izan.

21. Miguel Altuna, Eskola Elementaleko zuzendaria

- **Erref:** BER-349/026
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:46:59. **Bukatu:** 00:48:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Bergaran 50eko hamarkadan zeuden hezkuntza zentroak: eskola nazionalak, Elementala, dominikoak... Miguel Altuna, Eskola Elementaleko zuzendaria izan ze gerraostean. Eskola Elementala oso garrantzitsua izan zen euskararen bultzadan Bergaran. Enekok Batxilergoa herritik kanpo egin zuen, baina Bergaran ere bazegoen egiteko aukera.

22. Euskararen alfabetizaziorako gau-eskolak Bergaran

- **Erref:** BER-349/027
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:48:55. **Bukatu:** 00:50:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

1964an Josu Oregi eta Txomin Amasorrain euskarazko gau-eskolak ematen hasi ziren Bergaran. Josuk literatura eta euskal kultura irakasten zituen eta Txominek gramatika. Orduan ez zegoen irakasteko euskarazko materialik. Enekoren aitak euskaraz topatzen zituen liburu guztiak erosten zituen. 50eko hamarkadan Euskaltzaindiarentzat egoitza egoki bat bilatzen ibili zela kontatzen du.

23. Aditz-taulen sorrera

- **Erref:** BER-349/028
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:50:56. **Bukatu:** 00:52:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Euskara irakasteko materialak sortzen hasi zen Enekoren aita. Aditz guztien formekin osatutako hiru koaderno bete zituen eta, ondoren, aditz-taulak sortu zituen. Horiekin ematen zituen klaseak.

24. Euskalerriaren Adiskideen Elkartea

- **Erref:** BER-349/029
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:52:40. **Bukatu:** 00:55:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Bergarako Eskola Elementalean ematen zituen euskarazko alfabetatze klaseak Enekoren aitak. Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko eta Irigoien Patronatuko kidea zen. Elkarteei buruz hitz egiten du Enekok. Egan aldizkariaren garrantzia.

25. Euskarazko argitalpenak 60ko hamarkadatik aurrera

- **Erref:** BER-349/030
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:55:10. **Bukatu:** 00:57:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

60ko hamarkadan, argitaletxe txiki batzuk euskarazko materialak argitaratzen hasi ziren. 50eko hamarkadan, `Orixe´ren `Euskaldunak´ eleberriaren sorta bat erosi eta banaketa-lanetan ibili zen. Erregimenak euskarazko liburu bakar batzuk argitaratzen uzten zuen.

26. "La Academia Errante" elkartea

- **Erref:** BER-349/031
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:57:40. **Bukatu:** 01:00:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Donostian, sozialistek "Academia Errante" elkarte sortu zuten eta urtean pare bat aldiz gai bati buruz hitz egiten zen: Kixote eta euskaldunak, Lope de Agirre, Azkoitiko zalduntxoak... 30-40 lagun inguru biltzen ziren eta, nahiz eta sozialistek antolatu, pentsaera politiko ezberdinetako jendea biltzen zen. Hitzaldiak gaztelaniaz izan arren, euskal kulturgintzaren parte ere bazen, euskal gaiak jorratzen zirelako. Elkarteko kide batzuk aipatzen ditu: Urkola doktorea, Busca Isusi, Jaka, Iñaki Zumalde, Imanol Laborde...

27. Bergarako Irigoien Patronatua

- **Erref:** BER-349/032
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:00:21. **Bukatu:** 01:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Begarako Irigoien Patronatua nola sortu zen kontatzen du Enekok. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko babesaren izan zuen. Patronatuak gauza asko antolatzen zituen Bergaran: euskal-dantzak, euskarazko narrazio lehiaketak... Bergaran euskal-kulturaren aldeko ekimenak egiteko patronatu bat zen.

28. Ikastolen sorreran laguntzaile

- **Erref:** BER-349/034
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:03:00. **Bukatu:** 01:04:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Begarako Ikastolaren sorreraren ondoren, Eibarko hainbat pertsonarekin bilerak egin zituzten, han ere Ikastola sortu nahi zutelako. Enekokren aitak Santo Tomas Lizeoaren sorreran ere lagundu zuen.

29. Ikastolen eta euskalgintzaren loraldia

- **Erref:** BER-349/035
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 01:04:14. **Bukatu:** 01:07:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

Ikastolen inguruan, helburua bideak eraikitzea zela kontatzen du Enekok. 60ko

hamarkadan, oraindik ere Franco luzerako egongo zela ohartuta, euskal kulturaren eta euskararen alde zerbait egin behar zela pentsatzen zutenen ekimena izan zen Ikastolen sorrera. 1968tik aurrera, ikastolen loraldia hasi zen eta euskarazko hitzaldiak antolatzen ziren.

30. Kultura aldaketa: 1968tik 1974ra

- **Erref:** BER-349/036
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 01:07:37. **Bukatu:** 01:09:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1968-1974 urteen artean kultura aldaketa handia eman zen: kantagintza berria, jaialdiak... Antzerkigintzan, kulturgintzan, kantagintzan... euskarak presentzia handiagoa izan zuen: Bergarako Urretxindorrek, Kili-Kili komikia, Ernai antzerki-taldea...

31. Euskarazko Kili-Kili komikia

- **Erref:** BER-349/037
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:09:50. **Bukatu:** 01:11:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Kili-kili komikia eskola nazionaletan banatzen zen aldizkari bat zen. 60ko hamarkadan, eskola nazionaletan gerora ikastolara joango ziren haurrek ikasten zuten. Jose Antonio Retolazak argitaratzen zuen Bilbon komikia eta eskolan egiteko euskarazko ariketak. Ariketak jaso, zuzendu eta sariak ematen ziren.

32. "Txorizo eta Txistor" euskarazko komikia

- **Erref:** BER-349/038
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:11:18. **Bukatu:** 01:13:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

"Txorizo eta Txistor" euskarazko komikiaz hitz egiten du Enekok. Beste komiki batzuk ere euskaratu zituzten, Tintin adibidez.

33. Elosuko ikerketa etnografikoa amak egin zuen

- **Erref:** BER-349/039
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 01:13:03. **Bukatu:** 01:16:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria

Laburpena:

Enekoren amak Elosu auzoko lan etnografiko handi bat egin zuen Jose Migel Barandiaranek sorturiko galdetegian oinarrituta. Barandiaranek Etniker elkarteak sortu zuen eta, metodo zientifikoa aplikatuz, galdetegi sakon bat sortu zuen. Herri askotan burutu ziren lan etnografikoak. Enekoren ama euskalgintzako eta kulturgintzako militante sutsua izan zen.

34. Euskara batuaren aditzaren batzordea

- **Erref:** BER-349/041
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:16:51. **Bukatu:** 01:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Enekoren aitak euskal literatura zaharreko liburuak aztertzen zituen eta artikuluak idazten zituen. Euskaltzain urgazle bezala, euskararen batasuneko lanetan parte hartu zuen, bereziki euskara batuaren aditzaren batzordean.

35. Euskaltzaindia eta euskararen batasuna

- **Erref:** BER-349/043
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 01:18:52. **Bukatu:** 01:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Enekoren aitak beti egin zuen euskararen batasunaren alde. Bere lagun batzuk ideia oso kontra zeuden. Tirabira eta eztabaida ezberdinak egon ziren: Hego eta Ipar Euskal Herriko urgazleen artean, gipuzkoar eta bizkaitarren artean...

36. Ikastola barruko eztabaidak: euskara batua eta konfesionaltasuna

- **Erref:** BER-349/044
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:21:15. **Bukatu:** 01:23:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

Laburpena:

Ikastoletan bi eztabaida nagusi egon dira: euskara batuaren edo euskalkiaren erabilera eta konfesionaltasuna.

37. Berrikuntza pedagogikoa, alfabetizazioa eta Rosa Sensat i Vila

- **Erref:** BER-349/047
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 01:24:48. **Bukatu:** 01:28:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Jose Leon Lasa Apalategik euskaraz irakasten laguntzeko ikastaro bat antolatu zuen Loiolan. Kataluniatik pedagogia berrikuntzan ari zen jende garrantzitsuak hartu zuen parte. Ikastaro horretan sortzen ari ziren edo sortuko ziren ikastoletako andereño askok parte hartu zuten. Enekoren amak ere parte hartu zuen. Rosa Sensat i Vila hezitzailea egon zen bertan irakasten; hari buruz hitz egiten du Enekok.

38. Bergarako hezkuntza-zentro ezberdinak gerra ostean

- **Erref:** BER-349/051
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:31:32. **Bukatu:** 01:33:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Gerraostean Bergaran zeuden hezkuntza zentro ezberdinez hitz egiten du Enekok: "Santa Infancia" ikastola, academia... Proiektu pedagogiko berdina zuten, baina titulartasuna ezberdina.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com